

# HARRERA PAZIENTEEI ETA SENITARTEKOEI

## Urduliz – Alfredo Espinosa Ospitalea



PERTSONA  
HELBURU

EUSKO JAURLARITZA

OSASUN SAILA



COMPROMISO CON  
LAS PERSONAS

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SALUD

# AURKEZPENA

***Ongietorria*** egiten dizugu eta behar bezalako egonaldia opa dizugu ospitalean.

Urduliz - Alfredo Espinosa Ospitalea Osakidetzaren erakunde sanitarioa da, Uribe ESlaren baitakoa.

Herritarren osasuna hobetzeko egiten dugu lan, eta balore hauetan oinarritzen gara: profesionaltasuna, berrikuntza, talde-lana eta gure gizartearekiko konpromisoa.

Gure helburua da zuk ahalik eta tratamendurik eta zaintzarik onenak jasotzea.

Gida honetan ospitaleko egonaldirako informazioa jaso dugu; erabilgarria izango zaizue bai zuri, bai zure senitartekoei.

Ospitaleko egonaldiak iraun bitartean hau izango da zure erreferentziatzko medikua:

Gela-zenbakia: .....

Medikua: .....

# OSPITALIZAZIOA


Ospitalizazio-solairura **heltzen zarenean**, erizaintzako taldeak egingo dizu harrera; erizaintzako profesionalek zure egoeraren hasierako balorazioa egingo dute eta informazioa emango dizute: funtzionamendua, ordutegiak, arauak, etab.

Segurtasun-arrazoiak direla kausa, ospitaleko egonaldiak iraun bitartean zure datu pertsonalak dituen identifikazio-eskumuturrekoa eraman behar duzu.

Zure laguntza ezinbestekoa zaigu. Jakinaraziezaguzu elikagairen, materialen edo medikamenturen baten aurkako alergiarik duzun, eta etxean jasotzen ari zaren tratamendua. Ekarri etxetik norberaren garbitasunerako oinarrizko tresnak, lo egiteko arropa eta txapinak.

Ez ekarri ospitalera balio handiko objekturik. Ospitaleak ezin ditu bere ardurapean hartu.

**Egonaldiak iraun bitartean solairuan egon behar duzu, ez irten solairutik baimenik barik.**



# OSPITALIZAZIOA

## INFORMAZIO MEDIKOA

Mediku-talde arduradunak zure eboluzioaren gaineko informazioa emango dizu erregulartasunez. Galdetu jakin nahi duzun guztia.

**Bisita medikoa egunero egingo da astelehenetik ostiralera 10:15etik 11:15era. Bisita medikoan komeni da senitartekoak gelan ez egotea.**

Pazienteak hala nahi izanez gero, **informazioa emango zaie senitarteko zuzenei, edo pazienteak berak izendatutako pertsonari, egunero 11:30etik 12:30era**, solairuaren amaieran informazioa emateko prestatutako bulegoan. Telefonoz ez dugu informaziorik ematen.

## ERIZAINZAKO ZAINTZAK

Erizaintzako profesionalek eguneko 24 orduetan artatuko zaituzte. Lan-txanda bakoitzean erizain bat izango da zure zaintzaren arduraduna. Ezer behar izanez gero, sakatu oheburuan dagoen txirrina. Mesedez, ez erabili txirrina beharrezkoa ez bada, horrek beste pazienteei eskaini beharreko zaintzan eragin baitezake.

# OSPITALIZAZIOA

## BISITAK

Pertsona bat egon daiteke eguneko 24 orduetan pazienteari laguntzen. Gainera, bisita-ordutegian bigarren pertsona bat ere egon daiteke gelan. Hortaz, pazienteko gehienez bisitari bi egon daitezke gelan, pazienteei beraiei zor diegun errespetua dela kausa.

Bisita-ordutegia: egunero 12:00etatik 20:00etara

Ospitalea itxita egongo da 23:00etatik 07:00etara. Ordu-tegi horretan Larrialdietatik sartu eta irten behar duzue.

## ELIKADURA

Agindu dizuten dieta zure tratamenduaren zati da. Medikuak elikadurarik egokiena esleitu dizu.

Otorduak	
Gosaria	08:30-09:30
Bazkaria	13:00-14:00
Askaria	16:00-17:00
Afaria	19:45-20:45

# OSPITALIZAZIOA

## OSPITALEKO ALTA

**Zure mediku-taldeak erabakiko du ospitaleko alta noiz eman.** Saiatuko gara ospitaleko alta nahikoa denborarekin jakinarazten, egin beharreko guztia egiteko astia izan dezazuen.

**Altak 12:00etatik aurrera izango dira, bisita medikoa behin amaituta.**

Une horretan emango dizkizugu alta-txosten medikoa eta erizaintzako zaintzekin jarraitzeko txostena; bertan jasoko dira datozen egunetarako aginduak, eta, beharrezkoak badira, hurrengo hitzorduak eta egin beharreko probak.

Komeni da pazienteak ospitaletik alde egin behar duen unean laguntzaile bat egotea, pazientearen gauzak jasotzeko eta dagozkion gomendioak jasotzeko.

Beste pazienteen onurarako, gomendatzen dizuegu alta jaso bezain laster gela libre uztea.

Irizpide medikoaren aurka ospitaletik alde egitea erabakitzen baduzu, "Borondatezko alta" agiria sinatu beharko duzu.

## IDAZKARITZA

Solairuan **Idazkaritza-zerbitzua** dago, bertan eska ditzakezu behar dituzun administrazio-agiriak: enpresa-egiaztagiria, etab. Orduategia: **9:00etatik 15:00etara.**

# Informazio interesgarria

**Euskara:** ikur honen bidez profesional euskaldunak identifika ditzakezu.



**Telefono- eta telebista-zerbitzua:**

Gelatik dei dezakezu telebista-txartela erabilita. Gainera, kanpotik zuzenean dei daiteke gelara.

**Harrera-zerbitzua: Hall nagusian.**  
Orduategia 08:00etatik 22:00etara astelehenetik igandera.

**Harremanetarako telefono-zk.:**  
946134800.  
22:00etatik aurrera Larrialdi-zerbitzuak artatuko zaitu.

**Pazienteak eta Erabiltzaileak Artatzeko Zerbitzua (PEAZ):**  
eskatu informazioa Harrera-zerbitzuan

**Pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak:**  
Osakidetzak badu pazienteen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen agiria. Agiri hori Herreran duzu eta baita [www.osakidetza.Euskadi.eus](http://www.osakidetza.Euskadi.eus) webgunean ere.

**Mesedez, laguniez lagundu pazienteen erosotasuna eta lasaitasuna lortzen:**






- Gogoan izan indarrean dagoen lege-araudiaren arabera ezin dela erre ospitale-esparruan, ezta aire zabaleko eremuetan ere.
- Ahapeka hitz egin, itxi gelako atea eta ez zaitezte pasilloetan egon. Badugu paziente eta senitartekoentzako itxarongela, erabil ezazue.
- Zentzuz erabili sakelako telefonoa.
- Ospitaleak gizarte-erantzukizunaren aldeko apustua egin du, eta gure jarduerak ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izatea nahi dugu. Hori lortzeko zure eskura dauden baliabideak (argia eta ura, adibidez) erantzukizunez erabiltzeko gomendioa egiten dizugu, era berean birziklatze-edukiontzia erabiltzeko eskatzen dizugu.





**ZURE  
SEGURTASUNA  
ZAINTZEN DUGU,  
LAGUN IEZAGUZU.**

Zuk **ere** baduzu zeresana  
zeure **segurtasunean:**

-  Identifika zaitez
-  Ezagutu zure tratamendua
-  Egiaztatu ematen dizuten dokumentazio guztia
-  Alergikoa bazara, beti jakinarazi hori
-  Ez izan zalantzarik



**Osakidetza**

**PERTSONA HELBURU**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OSAKIDETZA

OSAKIDETZA